

www.noaua.com

N u !



noaua.com,
usurbildarren zerbitzura



Udazkeneko uzta

LATXA
Kutxa denda

USURBILGO
DENDA
BERRIA

Gusto haundiz



Janari prekozinatuak
kongelatuak
bertako produktuak

Zubiaurrenca 2 Tel.: 666 301 503

ALKARTASUNA
BASERRITARREN KOOPERATIBA

Naturalki

Janari ekologikoak
Piperminetarako ospina
Talotarako artirina
Patxaranelarako anisa
Herriko babarruna
Baba txiki beltza eta zuria
Baratzarako landareak
Herriko sagardo aukera
Baratza eta loretako liburuak
Konpostagailuak
Zabatoak
Zakur jana eta kalu jana aukera
Egur ikatza
Saski, lepotar, zare, xexto...
Ukenduak
Txorientzako kabiak
Lanerako erropa eta oinetakoak
Eta abar...

Ugarte Industrialdea, 12 Tel.: 943 36 11 14
alkartasuna@usurbil.com

AUTOESKOLA
SOLOZABAL



Kale Nagusia
Tel.: 943 376 936
Usurbil 20.170

Klase teoriko zein praktikoak, norberak nahi dituenearn

Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazio arteko agentzia zihurta agiria lortzeko ikastaroak

Gidatzeko karnet guztiak

Auto Guria




■ **AUTO KONPONKETA**

■ **MARKA GUZTIAK**

■ **PRE I.T.V.**

Osinalde, 9
Usurbil

Telf.: 943 363 298
Faxa: 943 363 862

Txirrikitutik

Kalezarren dagoen Ugarte baserria guztiok ezagutzen dugu; dagoeneko egunak kontatuak ditu ordea. Ugarteko inguruan Udalak etxeak egiteko nahia azaldu du eta horretarako inguruan dauden hainbat lantegi, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba eta Ugarte baserria bera ere etxe berriak egiteko botako omen dituzte. Bai, ondo irakurri duzue, Ugarte baserria desagertu egingo da.

Honako argazki hau 1997ko apirilaren 18an atera zen eta NOAUA! hamaboskariko 18. zenbakian agertu zen. Une hartan, bi klinika pribatu Ugarte baserrian zahar-etxe pribatu bat egiteko asmoak azaldu zituzten, martxan zegoen ikasleen erresidentziaren ordeztatzeko. Azkenean proiektu hura ez zen aurrera atera.

Orain berriz sekulako sarraskia egingo dute. Gure herriko ondarearen zati garrantzitsua den baserri bat desagerrarazi egingo dute; nonbait txanponak ateratzen duten soinua nahiago. Tristea benetan. Lerro hauetatik baserria ikustera animatzen zaituztet beranduegi izan baino lehen.

Zalao Arnaiz Ibarguren



EGILEA: NOAUA! K.E., 1997.04.18, UGARTE BASERRIA
JABETZA: NOAUA! K.E.

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieto, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapaskak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Onddo piloa jaso da azken asteotan

Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

PORRUSALDA _____ 10. ORR.

San Praixku jaietan erakusketa ikusgarri bat topatuko duzue Apaiz Etxean.



NOAUA.COM WEB GUNEA BERRITU DUGU _____ 12. ORR.

UZIAREN GARAIA IRITSI DA BASOETARA _____ 14. ORR.

KULTUR ASTEA IZANGO DA AZAROAN _____ 16. ORR.

KIROL IKASTAROAK MARTXAN _____ 17. ORR.

NAFARROA OINEZ, URRIAREN 17AN _____ 19. ORR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Mailegu eta Ordenantza Fiskal berriak onartu ziren iraileko udalbatza plenoan

Iraileko ohiko udalbatza plenoan, 1.750.000 eurotako mailegua hitzartzea erabaki zen. Egitasmoa hau 2004ko aurrekontuetan jasota zegoen. 2005eko Ordenantza Fiskalak eta etxebizitza sozialak esleitzeko baldintza berriak ere onartu ziren azken udalbatza plenoan.

Epe luzerako kreditu eragiketa aurreikusi zen 2004 urteko aurrekontuan. Inbertsio-egitasmo guztiei aurre egiteko, Udalak 1.750.000 eurotako mailegua hitzartzea aurreikusi zuen. Banku eta aurrezki kutxa ezberdinek hainbat eskaintza egin zituzten. Irailaren 21eko Hazienda Batzordean, ordea, mailegua hiru zatitan egitea proposatu zuen Alkatetzak. Hiru maileguen iraupena 15 urtekoa izango da.

Udalak, beraz, hiru mailegu hitzartuko ditu:

1. BBVArekin, 750.000 euro.
 2. Euskadiko Kutxarekin, 500.000 euro.
 3. Gipuzkoako Kutxarekin, 500.000 euro.
- Guztira, 1.750.000 euro mailegutun, 15 urteko epean kitatu beharrekoa.

Kiroldegiko kafetegia

Hizpide dugun udalbatza plenoan, 2005eko Ordenantza Fiskalak onartu ziren.

Beste gai batzuren artean, Kiroldegiko kafetegiaren erabilpena eta ustiaketa aztertu zen. Martxoaren 1ean Koitxi Koitxi Yaezakurarekin sinaturiko hitzarmen administratiboa bertan behera uztea erabaki zen. Zerbitzua berriz esleitzeko prozesua jarri du martxan Udalak. Lehen bezalaxe, orain ere lehiaketa publiko bidez esleitzeko da zerbitzua.

Etxebizitza sozialak

Udal jabegoko etxebizitza sozialak



MARTXAN DA KIROLDEGIKO KAFETEGIA ESLEITZEKO PROZESUA.

esleitzeko baldintza berriak onartu dira. Iazko baldintzak aldatu egin dira: diru sarreraren atalean, kasu, urteko gutxienezko diru sarrera haztatuak ezingo dute 3.000 euro baino txikiagoak izan (iaz, kopuru hau, 4.890,70 eurokoa zen).

Plenoan ere, PP alderdiko zinegotzi den Manuel Michelena Pertsonalگو Batzordeko kide izendatu zuten.

Mugikortasun Iraunkorraren Astea ez zen oharkabea pasa

Eusko Jaurlaritzak udalerriekin Ebatera garatu duen kanpainak arrakasta handia izan du. Partehartze maila altua izan da, bereziki, Udarregi Ikastolak egin duen lanari esker.

Garraio publikoa erabiltzearen onuraz, automobila erabiltzeak eragiten dituen kalteez eta, orohar, ingurumenaz hitz egiteko egunak izan dira hauek.



BESTE BEHIN ERE, BIZIKLETAK NAGUSI IZAN ZIREN KAXKOAN.



IKASLEEK LAN HANDIA EGIN DUTE KANPAINA HONETAN.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66

Urteinea

I r k - I r l n r k
L r s r t k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Udazkeneko hainbat kontu

Kaixo auzotar agurgarriok! Hemen gaude berriz ere, auzoko kontuetaz jarduteko. Uda amaitu zen eta urrian sartuta gaude jada. Urtero bezala, hasiak dira dagoeneko ehiztariak danbatekoka, eta hego haizeekin batera hasiko dira uso bandoak etortzen edo igarotzen. Orain dugu angula garaia ere hastear, laister hasiko gara, beraz, zubi inguruan mugimendu gehiago sumatzen; baita ibai ertzean *lumigasen* argiak ikusten ere.

San Praixkuak ere hasiak dira eta, urtero bezala, Kilometroak jaia ere joan zaigu jada. Aurtengoan gainera festa hau nahiko bertan tokatu zaigu, eta hori nabaria izan zen gure auzotik pasa ziren kotxe guztiak ikusi ondoren.

Eta bukatzeko behingoz eskerrak ematen bukatuko dugu. Izan ere, duela aste batzuk, fur-



goneta batek Zumeta jatetxearen aurrean apartatu nahian, farola bat bota baitzuen, eta jada berriro ere farola hori zutik eta martxan baitugu. Ea ba hau konpontzean ondoan dagoen zuloa ere ikusi duten eta laster tapatzen duten.

Txirristra kendu eta jolastokia jarri



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Kaixo aspaldikoak! Hemen gara opor ostean kistoritxoak kontatzeko asmoz.

Uda joan zaigu eta negua ere laster datorkigu. Hau marka! Denbora azkar joaten da, eta denboraz ari garenez, guztia aldatzen da honekin. Gogoratzen al zarete nolakoa zen txirristra? Sekulakoak eginak izango gara denok ere. Egia da oso arriskutsua zegoela garaiera handia baitzuen, hala ere, oraindik gogoan dugu "txirristra" tabernan dauden argazkiei esker.

Momentu honetan ezer gabe oso triste dago plaza txikia, eta orain, jolas egiteko tokia egokitu behar omen dute. Mahai eta aulki finkoak jarri behar omen dituzte eta bertan xakea eta beste hainbat joko.

Imaginatzen al zarete eguraldi ona egiten duen egunetan denak bertan jolasten? Ez da toki txarra, egia esan.

Lehen zuen xarma! Ume ugari ibili ohi zen lehen inguru honetan beren gurasoekin batera, orain, berriz, dena hutsa dagoenez, inor ez da



bertan jolasten ikusten.

Ea honela jendea txoko honetara bueltatzen den eta lehen bezala jendea pilotzen den.

Parke berria ala berritzeko?

Kaixo guztioi: lehendabizi, zorionak auzo honetako kronista den Pelle-ri eta bere neskalagunari, guraso egin baitira.

Asteburu honetan, larunbatean, San Joanetan oilasko biltzaileen egunean bildutakoarekin bazkaria egin genuen Peña Pagolan; primeran pasa genuen hurrek zein helduok. Berriketarako astia ere izan genuen, zenbait gurasoek beren kezka azaldu zuten parke berriari buruz. Hasiera batean auzo honek parke baten beharra zuen arazoa ikusirik, kostata hasi ziren, etxeko gaztetxoentzat, gune bat egiten. Denak pozik hartutako notizia izan zen baina gaur egungo kexa zera da, parkea bukatu gabe dagoela. Arriskutsu geratu da, parkearen goikaldean altuera handiko koxka dago, etxearen eta jolastokia zatitzen duen pasabide horretan, hain zuzen ere. Babes moduan barandilla edo sare bat jartzea proposatzen dugu. Gune horretara gerturatzeko ere eskilarak daude, hauei ere laguntza moduan, jaisteko zein igotzeko,



eskuko bat beharko luketela iruditzen zaigu. Dagoeneko goian aipatutako koxkatik behera ume batzuk erori dira. Berriz hau gerta ez dadin, guztion segurtasunerako, eskaera honi ahalik eta azkarren konponbide bat emateko beharra ikusten dugu. Mila esker.

Kalezar



AINARA
URIBE

Zakurren kontuak

Udaren ostean, ustekabe-an etorri da ikastoletako, institutueta eta unibertsitateetako klaseen hasiera. Bat-batean konturatu gara hurrek goizero herriko frontoian sortzen zuten zarata isildu egin dela.

Isilune hau, ordea, txorien txioekin, katuen miauekin eta

zakurren zaunkekin hautsi izan da betidanik. Herri txikia eta nekazal girokoa izanik arazo gutxi egon da animaliekin. Azken aldian, hala ere, gauzak aldatzen ari dira eta ez da gehiegi falta isiltasun osoa lortzeko.

Izan ere, udaletxeak sinaturiko zenbait karteekin egin dut topo azken asteetan Errekatxiki kalean. Kartel hauetan zenbait puntu azpimarratzen dira herrian txakurrak erabiltzeko arauak dagokienez. Edukia laburbilduz, zakurrek ezin dute aske ibili kaletik (gehienez bi metrotako kateaz lotuta), zaunka egiten badute musukoa



eraman behar dute, egingdako "kakak" (gorotza esango nuke, baina kartelean horrela jartzen du) jaso behar dira eta ezin dute zona berderik zapaldu, beraientzako egokitutakoak izan ezik. Hau dena oso ongi dago, detaile txiki batengatik ez balitz: alkate

jauna, usurbilgo zakur guztiak kontuan izanda, ba al dago denentzako lekua "egokitutako" leku nano horietan? Zakurrek lasterka egiteko eta lasai jolasteko lekua behar dute, aske ibiltzeko. Badakit beraientzat egokiagoa dela baserrietan bizitzea herrian baino, baina herrian ere baditugu eta ezin da ezer egin hori eragozteko; beraz, arazoak konponbidea behar du. Jar ditzatela "egokituta" dauden zela horietako gehiago herrian, edertzeko bakarrik ez baitaude. Bestalde, zein zakur motaz ariko dira udaletxe-koak, lau edo bi hankakoez?

Atxegalde



NEREA
KORTA

ZALOA
LEOZ

Santutene

Zer da inbasio hau?

Lanetik etxera nentorrela non ikusten ditut Ikastolako gaztetxoak, Autorik Gabeko Astea dela eta, bizikletan Usurbildik gure auzo honetara badatozela. Batzuetan horrelako egunak ospatzea beharrezkoa izaten da gogorarazteko autoa etxean uztea izaten dela egokiena zenbait egun eta gauzetarako. Baina hori ahaztu egiten zaigu eta edozer gauzetarako hartzen dugu. Hauek herritik behera etorri eta gure auzotik Txokoaldera joan ziren erriberatik barrena. Bidea hau oso atsegina da bizikletaz edota paseo bat emateko ere.

Nire ezustea ordea ez zen bizikletaz horrenbeste jende ikustea. Beste batzuk ere, herritar askoren moduan, bizikletaz pasa ziren bide berdina ikasi dute nahiz eta, alderantziko

norabidean egin. Ejerzito Espainola gure auzoan alajaina!!!! Bai bai, ondo entzun duzue, ejerzitoa. Penintsula guztia izan arren beraien maniobra eta eskursioak egiteko hauei ere gure auzoa eta inguruak gustatu. Ez dakit zuei zer inpresio egin zizuen baino, nik ikaragarritzko sustoa hartu nuen. Eta ez pentsa bide iskinatik pasa zirenik. Bide guztia hartuta pasa ziren eta guk kendu behar bazterrerara. Begiratuak ere ez zire irribarre batekin lagunduak izan.

Egun osoan ibili ziren helikopteroak airean eta soldaduak lurrian. Gure auzora denak izan ohi dira gonbidatuak, baina nik pertsonalki ez nituzke hauek nahi ez auzoan eta ez inon. Aukeran nahiago nuke berriz ere bizikletan gaztean edo paseo amatera datozenak topatzea.

Bisitariak

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaia

Irailaren 22a zen. Arratsaldeko laurak aldean, telebistari begira aurkitzen ginen etxean. Batean burrunba handi xamar bat entzun genuen. Helikoptero militarrek izango zirela pentsatu nuen nik, bezperan ere ibiliak baitziren inguruetan. Leihora irten, eta bai, zuzen nenbilen, bi helikoptero militar pasa ziren hegan nahiko behetik.

Erriberara begira jarri eta zerbaitek nire atentzioa deitu zuen. Zerbait arraroa ikusten nuen erriberako belardi batean. Bai, militarrek zeuden bi taldeetan jarriak. Talde bakoitzean pertsona bat ikusten zen txaleko erreflektantea jarrita. Belardian, kea botatzen zuen zerbait zeukaten.

Halako batean, bi helikopteroak, belardian lurreratu ziren, bakoitza talde baten aurrean. Txalekodunak agindua emandakoan, militarrek, binaka binaka sartu ziren helikopteroan korrika. Atzetik txalekodunak sartu ziren eta denbora pixka bat egon ondoren, helikopteroak berriz aireratu ziren, gure begien bistatik desagertu arte.

Gu lehiotik ikusi genuenarekin harrituta, beheko bizilagunak ere atarira atera eta gure moduan



gelditu zirela uste dut. Eta zer esanik ez erriberan piperrak biltzen edo paseatzen ari ziren haiek nola gelditu ote ziren.

Aurrerago jakin nuen Aginagatik oinez edo mar txan pasa zirela eta bizilagun batzuk ere ikusi zituztela oinez pasatzen.

Nire iritzi xumea da, baina nahiko lotsagarria iruditzen zait honelako ikuskizuna ikusi beharra. Euskal Herritik kanpo badago nahikoa toki beraien ariketa eta maniobrak egiteko, zergaitik etortzen ote zaizkigu muturren aurrera?

Giro ezin hobe

Kaixo denoi! Berriro ere hemen ditugu San Praixkuak, jadanik asteburu bat pasa zaigu baina oraindik ere badago zer ikusi eta zer gozaturik.

Giro ezin hobe izan dugu oilasko biltzailetan ere, ene!...

Jende asko elkartu zen ohitura zahar hau jarraitzeko gogoz, eta giro ezin hobean gainera. Ondoren, urtero bezala bazkaria egin zuten eta jarraian jandakoa jaisteko aitzakiaz edo futbol partida bikaina jokatu zuten Sekañako futbol zelaian.

Batek baino gehiagok urtean behin bakarrik egiten du dantza eta egun hau aukeratzen du horretarako, ez dago gaizki!

San Praixku egunean ere jende asko bildu zen, badakizue, mezetara joan, ondoren hamaiketakoa... Aitzakia dotorea egun polit bat pasatzeko.

Aurreko asteburua ez da makala izan, alde



batetik jaiak eta, bestetik, jai garrantzitsu bat inguruko bi herritan: Kilometroak. Han ere, jende multzo galanta bildu zen festaz gozatze-ko gogoz eta, bide batez, Gipuzkoako ikastolei diru pixka bat emanez.

Badakizue, oraindik asteburua gelditzen zaigu hainbat ekitaldiz josia, ondo pasa!

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Bukatu gabe dauden lanak

Kostako da oraindik Zubietako obrei bukaera ematea, eta pazientziaz hartu beharko dugu falta dena. Baina obra horiekin batera, badira premia handiko beste eginbehar osagarri batzuk ere, urbanizazioa bukatu zain egon gabe aurreratu behar direnak. Hara adibide batzuk.

Zaborrontziak

Obrak hasi zirenean kendu egin zituzten plaza inguruko zaborrontziak, eta haien ordezkorik ez zen inon jarri. Gaur ez dago aitzakiarik zaborra biltzeko ontziak behar bezala ez jartzeko. Zubietara osoan jarri beharko lirateke, gainera, gaikako zaborrontziak.

Bideak

Zeren zain dago Usurbilgo Udala Iturralden hasitako obrari bukaera emateko? Momentu egokia da honako hau, Aliriko zubiko obrak direla eta, oso trafiko gutxi baitabil Iturralde aurretik.

Gas-hornikuntza

Zubietara lur azpitik gasa ekartzeko egitasmoa onartua dago, hipodromoko zubitik kaskora doan bidea hobetzearekin batera. Obra hori datorren urtean egin ezean, bestelako behin-behineko neurriak hartu beharko dira etxeetara gasa eramateko. Deposituak, edo dena delakoak, kendu eta jarri ibili ordez, pena litzateke gasa lur azpitik ez ekartzea.

Frontoiaren erabilera

Erabat bukatuta dagoela esan daiteke. Baina oraindik ez dago erabiltzeko baimenik. Ez eta, erreboteko txapelketan ikusi dugunez, aldagelak erabiltzerik. Frontoiaren mantentze-lana nork eta nola egingo duen erabaki, eta zerbitzu publiko hori herritarron eskura jarri behar da lehenbailehen.

Lau adibide besterik ez dira. Eta seguru asko denak ez dira zailtasun maila berekoak. Baina hasitakoa bukatzea ederra da.

Zubietara



**XABIER
ARREGI**


San Praixkuko erakusketa, ikustekoa

Aginagan, urtean zehar, ikastaro ugari izan ohi da. Festetan, berriz, ikasleen lan esanguratsuak biltzen dira Apaiz Etxean, tartean, Amaia Kasasolaren ikasleenak. Eta horien artean, atentzioa deitu digute Andoni Olanoren margolanek. Erakusketa jaiekin batera amaituko denez, oraindik bada bisita egiteko denbora.

Pintura eta Andoni Olanoren arteko harremana bitxia da. Bere semea, Xabier, Amaia Kasasolaren pintura ikastarora eramaten zuen. Orduan izan zuen helduen ikastaroen berri. Duela bost urte, ordea, semea bezalaxe Andoni ere, Amaiarekin hasi zen ikasten. Gaur egun, semeak jada ez du margotzen, baina aita gustura dabil Aginagako pintura ikastaroan.

Andoni Olanok esan digunez, “txikitant gustukoa nuen. Baina duela bost urte hasi nintzen ikasten”. Astean bitan hurbiltzen da Aginagako tailerrera. Eta pozik ikusten zaio, “bi orduko klaseak dira baina denbora azkar pasatzen zaigu”. Txantxetan, emakumeak ikasgelan nagusi direla aitortu digu Andonik, “eta oso ondo zaintzen naute”.

Pintura eta marrazketa ditu gustuko, eta aukeran, paisajeak nahiago. “Erretratuak margotzen ere hasi naiz”,



ALABA AGERI DA XABIER OLANOREN KOADRO IKUSGARRIAN.

teknika hori menderatzea da Andoniren beste erronka nagusia.

Pintzela ez ezik, argazkia ere gustuko afizioa du. Askotan, aukeratu dugun irudia bezalaxe, argazkietan oinarritzen da.

Uurbilen bizi den arren, astean bitan Aginagara joaten da. Hasi zenetik gaur arte, koadro asko margotu ditu. Etxean denak ezin kabitu eta lagunaren artean banatu ditu hainbat margolan: “Baina penaz oparitzen ditut”.

Gustuko duen afizioa da. Koadroa bukatzen duenean, gehienetan, sorpresa hartzen du, pentsatu baino hobea izaten omen da azken emaitza.

Aurten ere, Aginagako pintura ikastaroko beste ikasle bat izango da: “oso giro ona dugu eta asko ikasi dut Amaiarekin”, aitortu digu Andoni Olanok.

Aginagako Apaiz Etxean topatuko dituzue Andoniren eta gainontzeko ikasleen lanak.

San Praixkuak, azken txanpan

URRIAK 8, OSTIRALA
UMEEN EGUNA

09:00etan umeen jolasak.

14:00etan bazkaria.

17:30ean Pirritx eta Porrotx. Ondoren, Txokolotada eta buruhandiak.

00:00etan Akelarre taldearekin dantzaldia.

URRIAK 9, LARUNBATA
PRESO, EREFUXIATUEN EGUNA

16:00etan XXIV Mus Txapelketa

Herrikoia.

21:00etan Herri Afaria (txartelak betiko tokietan salgai).

00:00etan herriko presoei omenaldia. Ondoren, Egan taldearekin erromeria.

URRIAK 10, IGANDEA

12:00etan XXII Toka Txapelketa.

17:00etan motozerra ikuskizuna.

Arratsalde, EHNAko postua.

19:30etan bertsolariak. Xabier Silbeira, Jon Maia, Nerea Elustondo.

Gaijartzaile: “Tola”.

12:00etan Abiba DJ saioa.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

L A B E - G O X O

L T I L L E

ITU GINTZ G SET E GINTZ

I N S T L K U N T Z K

IZTITX K I E . (3) 3 2 35-3 33
EHF M I 21

MIKEL

IZ GI E

ELEKT BAT TE

el 11 - 11 111

Matrikulazio kopuruak gora egin du Zumarten

Matrikulazio kanpaina itxi berri du Zumarte Musika Eskolak. Ikasle eta matrikulazio kopuruak gora egin duenez, oso pozik daude Zumarteko kideak. Aurten, gurasoentzako ikastaroa antolatu nahi dute. Oraindik bada izena emateko epea. Animo, beraz.

Musika Txokoan (4-7 urte bitarteko ikasleak) 68 haur izango dira. Ikasturte honetan, beraz, nabarmena izan da ikasle gaztetxoaren igoera. Musika Mintzairan (8-12 urte bitartekoak) 60 ikasle; eta Instrumentuan, berriz, 102 matrikula egin dira.

Honetaz aparte, Abesbatza eta Informatika Musikaleko ikasleak ere izango dira.

Zumarte Musika Eskolako kideek aditzera eman digutenez, "oso pozik gaude emaitza hauekin, eta eskolan lanean daramatzagun 20 urte hauetan, zaletasuna mantendu eta handitzeko balio izan dute".

Gurasoentzat ikastaroa

Ikasle gazteak hasi dira lanean. Orain,



MUSIKA TXOKOAN, 68 HAUR IZANGO DIRA IKASTURTE HONETAN

Zumarte Musika Eskolakoe, gurasoak jarri nahi dituzte pupitrearen beste aldean. Azaroa-maiatza bitartean, helduentzako musika ikastaroa antolatu dute. Astearen behin, ordubetez, musika ikasteko aukera izango da. Ikastaro honen ondoren, datorren urtean instrumentua

ikasi ahal izango da.

Ikastaro honetan izena emateko egunak eta ordutegiak, hauexek: urriak 4-7 bitartean, Zumarte Musika Eskolan (astelehene, astearte eta ostegunean 10:30-12:30 bitartean; astearte eta ostegunean, 18:00-20:00 bitartean).

Egundoko giroa Tuteran

Lagun asko bildu ziren irailaren 26an Tuteran, "Elkartasuna... Etorkizuna" jaiaren hirugarren edizioan. Beterri Peñak egundoko egitarau aberatsa eta oparora prestatu zuen. Zazpi herrialdetako kultur ordezkariak zabala bildu zen Tuteran, tartean, usurbildarrak.

Hasteko, eguerdiko 12:30ean kalejira ederra egin zen kalerik kale: Iruñeko Zantantzarrak, Ablitasko dantzariak, Sartagudako jotariak, Usurbilgo eta Izarrako trikitilariak, Basauriko txistulariak, Galdakaoko albokariak, Muskildiko dantzariak, Baigorriko gaitariak eta Gasteizko Kilkir fanfarrea. Kalejiran, 400 pertsona inguru bildu ziren. Ordubeteko kalejira honek hainbat bazterretan dantza saioak eta paradak izan zituen, bertako txokoak alaituz.

Ondoren, 13:30ean, bazkal tokian ipinirik zegoen oholtzan, Usurbilgo txalapartariak bere erakustaldia egin zuten, baita Sartagudako jotariak ere. Giroa berotzen hasi zelarik, jendearen umorea ere gora egiten hasi zen. Bazkal ostean ekitaldi nagusia etorri zen, hau da, herrialde bakoitzak ekarri zuen ordezkariak kulturalaren erakustaldia. Lapurditik Sukanpil taldea, Añorgako Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariak, Usurbilgo trikitilariak, Izarrako Musika Eskolako eskaintza, Basauriko txistularien kontzertua, jotariak eta beste hainbat talde. Bi orduko jaialdiaren ondoren, oroigarrien banaketaren ordua etorri zen. Dagoeneko, bildutako jendea beste hainbat herrikoekin solasean zebilen, bakoitzak zer nolako lana egiten duten eta aldi berean nolako kezkak dituzten aztertzen. Azkenetako, heltzeko ordua etorri zen eta batzuei motza egin



400 LAGUN BILDU ZIREN TUTERAN EGIN ZEN BAZKARIAN.

arren, egunak zapore gozoa utzi zuen.

Hurrengo urtean, Basaurin

Hurrengo urteari begira, Basaurikoei pasa zitzaien lekukoa. Dena den, bizkaitarrek hausnartu eta erabakia baiezkota izango den arren, beraiek dute azken hitza.

Partehatzaile izateko tresna guztiak ditu noaua.com web orrialdeak

Teknologia berrian arloan, berrikuntzak etengabeak dira. Behin eta berriz gaurkotu behar dira ezagutzak eta eskaintzak. Gure web orrialdea da honen guztiaren adibide. Lehenik, noaua.com orrialdea sareratu genuen. Handik gutxira, astean behin hasi ginen edukiak berritzen. Gaur egun, uneoro eraberritu ditzakegu noaua.com guneko albisteak eta zerbitzuak. Pluralean esan dut, edonork, irakurle zaitugun horrek ere, web gunea elikatzen aukera duzu-eta. Partehartzailea izateko tresna guztiak ipini ditugu usurbildarren esku. Orain, zuena da txanda.

Albisteak idatzi, edota jada sarean dauden berriei erantzun, eztabaida foroetan parte hartu, inkestan botoa eman... Hitz batez laburbildu behar badugu, partehartzailea izan daiteke egokiena. Edozein unetan, parte hartzeko moduan berritu baitugu noaua.com web orrialdea.

Bestelako atalekin ere osatzen da gure web gunea. Usurbili buruz datu asko jasotzen ditu noaua.com orrialdeak. Historikoak ez ezik, gaur-gaurkoak ere herriko taldeen zerrenda, zerbitzu anitzaren txokoa... Eta atal bereziak. San Praxku jaiekin osatu duguna, esate baterako.

Hamaboskaria sarean

144 aletik hona, sarean dituzu NOAUA! hamaboskari guztiak. Gogoan izan, hamabostero aldizkariko edukiak zintzilikatzen ditugula noaua.com helbidean. Kanpoan diren usurbildarrek, bereziki, estimatzen duten zerbitzua.



24 ORDUZ, ETENIK GABE, GAURKOTU DAITEKE ALBISTEGIA.

Azkarra eta erraz erabiltzekoa

Albistegia da web orrialdeko atal nagusia. Bada uztailetik hona, parez pare zabaldu dugu web orrialdea. Edonork idatzi dezake albiste bat. Prozedura erraza eta azkarra da. Idatzi eta berehala sarean agertzen baita albisteak. Ez hori bakarrik, sarean dauden albisteei erantzuteko aukera ere zabaldu dugu.

Beraz, informazio hartzaile ez ezik, informazio emailere ere izan zaitezke.

Albisteak idatzi

Albistearen erantzun*

Lehenburua

Data: Urte 2004 Hilabetea 9 Eguna 30

Bidaltzailea

Eposta

Testua

Argazkia

Bidali

Erantzi

PATRI
JATETXEA

- Igumeroak menuak
- Plater kulinariak
- Ogiak

Tel: 943 36 27 25

TXIRIBOGA
TABERNA

ntx - k, - k - t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Menuak astean zehar eta

ZENDOIA
TABERNA

Kale Nagusia 35
Tel: 943374021

Erteburutan Menu bereziak

2 17
USU IL

Uztaren garaia heldu da basoetara

Onddo eta perretxiko garai emankorrena uda amaiera izan ohi da. Bereziki, ekaitz batetik besterako tartean; baina, kopuruz eta kalitatez, udazkena da garairik egokiena. Perretxiko eta onddo bilketak liluragarri izaten jarraitzen du. Nolanahi ere, hasiberri edo aditu izan, zuhurtziaz jokatu beharko genuke: inguru-nea errespetatuz eta zalantzazkoak diren onddo eta perretxiko aleak alboratuz. Zuhurtziaz bada ere, basoak eskaintzen digun uzta eder honetaz gozatzeko garaia da.

Batzuk, denbora pasa, ibilaldia egin eta naturaz gozatze aldera joaten dira; bestek, perretxikoek sukaldaritzarako eskaintzen dituzten aukera bikainengatik, eta bakarren batzuk mikologiarako zaletasun hutsez, benetan zientzia erakargarria baita.

Kontuak kontu, gero eta gehiago dira asteburuetan goizean goiz jaiki eta esnegorri goxo, onddo bikain edo catarellus aldakorren "habia" ederren batekin topo egitekotan mendira abiatzen direnak.

Jende asko Andatzan

Azken aste hauetan onddo eta perretxiko ugari biltzeko aukera izan da. Saskia bete perretxiko itzuli dira onddo-zale asko. Honen ondorioz, lagun asko ibili dira Andatza aldean.



ONDDOAK, PERRETXIKOAK, GAZTAINAK... BASOA BORBORKA DUGU EGUN HAUETAN.

Nafarroan eta Pirinioak, onddozaleen topaleku

Andatza emankorra da oso, Aia eta Zizurkilgo mugetan bereziki. Arratzain ere leku estimatua da. Onddo eta perretxikotarako leku aiposean bizi gara, egun hauetan jende asko ibiltzen den arren. Gure mugetatik kanpo, Nafarroa eta Pirinioak dira onddozaleen topaleku nagusiak.

BILKETARAKO FUNTSEZKO ARAUAK

Eskarmentu handikoa izatea edo horrelakoen aldamenean aritzea funtsezko arautzat jotzen da. Esku-libururik hoberena eramatea ez da nahikoa. Mikologorik adituenek ere, soilik 30 perretxiko eta onddo ezagutzen dituzte ondoen. Beraz, ezaguna ez den perretxikoa ez hartzea gomendatzen da. Hona hemen baliogarri izan daitezkeen beste hainbat arau.

- Perretxikoa ezaguna ez baduzu, ez bildu.

- Bildu baduzu, baina espezieaz seguru-seguru ez bazaude, ez jan.

- Errepide, lorategi publiko, meategi, galdategi, aireportu eta erraustegien aldamenean agertzen diren perretxikoek metal astunak (beruna, merkurioa,

kadmioa eta antzekoak) edukitzen dituzte. Jasotzen errazak badira ere, hobe dugu horrelakorik ez biltzea: toxiko izan daitezke eta, garbituta ere, toxikotasun hori ez diegu kenduko.

- Perretxiko bat aurkitzen duzunean, bilatu espezie horretako beste ale batzuk inguruetan; jaso helduak, baztertu zaharrak eta gazteak. Zaharra plateran ez da behar bezain goxoa izango eta gazteak, berriz, bere habitatean hazi eta ugalketa-zikloa osatu behar du.

- Baliatuko duzun kopurua baizik ez jaso. Aholku hau ekologikoa bezain praktikoa da: perretxikoa oso elikagai galkorra da; horietako batzuek izozteko balio duten arren, ahogozagarritasuna dezente galtzen du horrela. Horrez gainera, espezie bera denbora-



ERABILIKO DEN KOPURUA BAINO EZ JASOTZEA GOMENDATZEN DA.

tarte laburretan ez jatea aholkatzen dute adituek: tolerantzia tolerantziarik eza bihur daiteke, digestioa astun gertatu edo, agian, organismoa ez da gauza izango digestioa egiteko.

- Ez kontsumitu ale guztiak: utzi baten bat, toxi-infekziorik gertatzen bada, erreferentzia izateko.

Daniel Palacios, mikologoa: “Jangarriak direnak baino, toxikoak direnak ezagutu beharko genituzke lehenbizi”

Bere estudioan jaso gaitu Daniel Palacios. Bibliografia osatua du, eta ikerketerako, tresneria ugari du eskura. Hainbat liburu eta ikerketa argitaratu ditu eta, laster, Euskal Herriko onddoen gida berri bat argitaratuko Daniel Palacios (‘Guía de campo de hongos de Euskal Herria’, Grupo Delta).

Aranzadiko Mikologia departamenduko lehendakari izan zen. Jardunaldi eta hitzaldi askotan hartu du parte. Orain, arlo publikoa alde batera utzi eta ikerketari eskaini nahi dio bere denbora. Proiektu ugari ditu, tartean, Andatzako Mikologia Ikerketa osatzea.

Herritar askok zuregana jo ohi du. Zeintzuk dira zalantza nagusienak?

Jangarria den ala ez jakin nahi dute; bost axola zaie zer duten eskuartean. On eta txarren artean klasifikatzen dituzte. Jatekoak eta botatzekoak. Hori da preokupazio nagusia.

